

Museoen deskolonizazio prozesuei buruzko jarrera

Museoak, historian zehar, funtsezko erakundeak izan dira kultura- eta zientzia-ondarea kontserbatu, interpretatu eta zabaltzeko. Bestalde, haien zeregina garrantzitsua izan zen -eta da- tokiko eta nazio mailako nortasunak eratzeke orduan, nortasun horiek museoek zaintzen duten ondarearen azterketari eta aitortpenari lotuta baitaude.

Antropologo gisa, badakigu ondarearen inguruko ekoizpen zientifikoa ez dela programa neutrala, objektiboa eta apolitikoa, proiektu politiko jakin batzuei lotutako botere- eta ezagutza-dinamiken parte baizik. Alde horretatik, museo eta bilduma askok lotura estua dute Mendebaldeko Europako metropoliek K.o. XV. mendetik aurrera abiarazitako ekimen inperial eta/edo kolonialekin. Europako museoek gordetzen duten ondare kolonialaren jatorriari eta existentziari buruzko eztabaidak hura eskuratu zen garaikoak badira ere, azken hamarkadan eztabaidak ugaritu dira aipatutako ondarearen erabilera gero eta gehiago kolokan jarri baita alde desberdinetatik. Testuinguru horretan, antropologiako museoek leku nagusia izan dute eztabaidetan, beren funtzioa, gobernatzeko modua eta aliantzak zalantzan jarri baitira alde askotatik begiratuta.

ASAAEek garrantzitsutzat jotzen du gai horiei heltzea ikuspegi kritiko eta eraikitzaile batetik. Izan ere, antropologiak zeregin nabarmena izan du etnografiako eta natura-historiako museoak osatzeko orduan, baita kultura-ondarea, ondare materiala eta ondare immateriala kontzeptualizatzeko ere. Era berean, badakigu antropologia Europako ekimen inperialen baitan sortu zela, ekimen horien proiektuak justifikatzeko asmoz. Bildutako ebidentzia horiek nolabaiteko ardura ematen digute, eta, horregatik, antropologo gisa, ezinbestekoa iruditzen zaigu laguntzea ondare horren eta antropologiako museoen etorkizunaren inguruko berrikuste-, berrorientazio- eta elkarriketa-prozesuetan. Lehenik eta behin, aipatutako bildumek interpelatzeko dituzten komunitateekin maiz izaten ditugun harreman estuengatik. Bigarrenik, antropologiak gure gizarteak kritikatzeko tresna ahaltsu gisa duen erabilgarritasunagatik.

Alde horretatik, beharrezkoa iruditzen zaigu honako kontu hauek azpimarratzea:

1. Iragan kolonialaren onarpena eta gardentasuna.

Museoek beren iragan arrazista eta koloniala aztertzeke eta zabaltzeko konpromisoa hartu behar dute, eta prozesu horretan gaur egun beren bildumen parte diren pieza asko erosi ziren baldintzak sartu behar dituzte. Horrek eskatzen du dokumentazioa zorrotz berrikustea eta jendearekiko komunikazioa ahalik eta gardenena izatea.

2. Elkarriketa eta lankidetzat jatorrizko komunitateekin.

Deskolonizazioa ezin da museoen barne prozesu gisa bakarrik ulertu; aitzitik, bildumak sortu ziren jatorrizko komunitateekin etengabeko elkarriketa simetrikoa behar da, bildumak kolonia zaharretan zein metropolietan egon. Horren barruan sartzen da askotariko erreparazio prozesuak sustatzea, eta ondarearen interpretazioan ahots baimenduak eta mendebaldekoak ez diren epistemologiak sartzea. Beharrezkoa iruditzen zaigu pieza eta bildumei lotutako mendeko ezagutzak ezagutaraztea eta duintzea; ez dugu erori behar, beraz, argumentuak eta helburuak bazter utzita ezagutzak baliozkotzen dituen halako populismo intelektual batean.

3. Narratiben eta epistemologiaren dibertsifikazioa.

Funtsezkoa iruditzen zaigu diskurtso museografikoen berrirakurketa kritikoa sustatzea, estereotipoek eta ikuspegi eurozentrikoek iraun dezaten saihesteko. Horrek eskatzen du ikuspegi desberdinak sartzeko museoetako praktika kuratorialetan eta hezitzaileetan.

4. Etika ikerketan eta kontserbazioan.

Antropologiak ondarearen ikerketan, dokumentazioan eta kontserbazioan praktika etikoak bultzatzeko konpromisoa du, erreparazio-, kontserbazio- eta berrinterpretazio-prozesuak beharrezkoak diren errespetua eta sentsibiltatea izanik egingo direla bermatzeko.

5. Politika instituzionalak berrikustea.

Museoen deskolonizazioak egiturazko prozesu iraunkorra izan behar du. Horrek esan nahi du sakon berrikusi behar direla bildumak eskuratu, kontserbatu eta erakustearekin lotutako politika instituzionalak, eta sektoreko profesionalei zuzendutako prestakuntza-programak ezarri behar direla. Era berean, Europako gizarte garaikideen berezko kultura-, genero- eta klase-aniztasuna errespetatzen duten lan-politikak finkatu behar dira. Funtsezkoa da, halaber, museoen aliantza estrategikoak birpentsatzea, logika kolonialak errepika daitezen saihesteko eta mendeko ezagutzen balioa aitortzeko, gaur egun haien zapalkuntza iraunarazten duten sistemak indartu gabe. Gure ustez, museoen diskurtsoen eraldaketa ez da sinesgarria izango halako erakundearen gobernantza-praktiketan benetako aldaketak egiten ez badira.

6. Museoak erreparazioarako gune gisa.

Museoen deskolonizazioa kokatu behar da kolonialtasunaren logikei buruzko hausnarketa kritikoa esparru zabalago batean, hau da, kolonizazio-prozesu historikoetatik haratago dirauen botere-harremanen sarean. Testuinguru horretan, museoek lan egin dezakete (eta lan egin behar dute) erreparazio sinbolikoko, politikoko eta materialeko politiketan lagunduko duten espazio gisa. Politika horiek, hala ere, ezin dira museoen eremu instituzionalera mugatu; mugak gainditu behar dituzte, beste eragile eta erakunde publiko eta pribatu batzuk tartean sartuz. Antropologok, gure prestakuntza kritikoagatik eta komunitateekin dugun konpromisoagatik, funtsezko zeregina bete dezakegu ondare kolonialak aztertzeko eta erantzukizunak, solaskide legitimoak eta erreparazioarako mekanismo egokiak identifikatzeko orduan. Alde horretatik, ezinbestekoa da erreparazio-prozesuak keinu sinbolikoetara ez mugatzea: egiturazko aldaketa iraunkorrak egin behar dira, adierazpen hau bideratzen duten printzipio etiko eta politikoen ildotik.

Laburbilduz, ASAAEk defendatzen du museoek hausnarketa kritikorako eta kulturen arteko elkarrizketarako gune izan behar dutela, eta deskolonizazioa ez dela mehatxutzat hartu behar, baizik eta botere-harremanak birpentsatzeko aukera gisa, bai ezagutzaren ekoizpenaren arloan bai gizartean. Horrela, aurrera egingo dugu museoak aniztasuna errespetatzen duten erakunde inklusiboagoak izateko bidean. Ildo horretan, ASAAEk museoen deskolonizazio-prozesuak arautzeko asmoz lege-esparru integral berri bat eskatzen ari diren ekimen herritar guztiak sustatu eta horietan parte hartu nahi du, adierazpen honetan bildutakoarekin bat etorriz.

Gure konpromisoa berresten dugu antropologiaren ikuspegitik eztabaida horretan laguntzeko eta lankidetzan aritzeko museo-eredu bidezkoago eta zuzenago baten eraikuntzan inplikaturako erakundeekin, komunitateekin eta beste eragile batzuekin.

ASAAEek museoen deskolonizazio prozesuei buruzko bere jarrera iragarri du, 2025eko irailaren 30eko dokumentu honetan adierazita.